

Down syndromea oztopo ez denean

Leire Durangon bizi da. Bere
famiaren xehetasunak
zuzenean kontatzen dizkigu

2008 Ira 4

Leire Zalba dut izena. Durangon jaio
nintzen 1975eko abenduaren 26an
eta sei ahizpen artean gazteena naiz.
Nire gurasoek, Opus Deikoak biek,
betidanik erakutsi digute kristau
bizitza eramaten, elkarren arteko eta
besteenganako maitasunaren
garrantzia azpimarratuz. Ziur nago
hau benetan funtzeskoa izan dela

hain bat eginda egoteko
heldutasunera iritsi garenean.

Nire haurtzaroa guztiz normala izan zen. OHO Durangoko Jesusen Bihotza ikastetxean egin nuen, eta hango oroimen eta adiskide on asko gordetzen ditut. Amaitzean Bilbora joan nintzen LH ikastera Arangoya Ikastetxean. Bai urteak haiek! Bost urte haietan Jainkoak nire norabidea aldatzea erabakia zuen, nik “ongi bizi, bi egun baizik ez dira eta” pentsatzen bainuen, eta, horrela izan behar du, bainan ongi biziz.

Arangoyan Opus Dei zer zen ulertu eta supernumeraria bezala kide izatea eskatu nuen. Zerk lagundu zidan? Gogo zuzendaritzak, otoitzak eta garrantzi handikoa iruditzen zaidan beste eragile batek: nire inguruko jendearen umore onak.

Urte hartan bertan Rober, orain nire senarra denarekin, ateratzen hasi nintzen. Ikusi daitekeenez, urte

berezia izan zen. Arangoyan
bukatzean, garbi nuen Erizaintza
ikasi nahi nuela, baina ez nintzen
batez besteko notara iristen eta
Hezkuntza Berezia ikasi nuen
Donostian. Ez nintzen oso ongi hasi,
aitortu behar dut, bederatzi
ikasgaietatik bat bakarra gainditu
bainuen eta etsita nengoen; eskerrak
une hartan nire gurasoek animatu
nindutela; hauxe esan zidaten:
bukatu ezazu ikasturtea eta erabaki
gero. Egia esan, pozik bukatu nituen
hiru ikasturteak

Karrerako azken urtean Rober eta
biok ezkontzea erabaki genuen.
1999ko ekainean bukatu eta urriaren
2an ezkondu ginen. Egun zoragarria
izan zen, eta, egia esan, geure burua
ongi prestatzen saiatu ginen. Geure
burua prestatu esan dut, biok saiatu
baiginen ezkongai harremanak
kristauki bizitzen; hauxe diot, zeren
eta maite duzun pertsona ondoan
duzunean, zorakeriaren bat egin

dezakezu noizbait. Biok batera otoitz egiten saiatzen ginen eta horrek asko laguntzen ginduen; borrokatuz eta bestea errespetatuz gehiago maite izaten baituzu. Gure helburua “familia argi eta alaia” sortzea zen eta hari ekin genion.

Urte bat geroago jaio zen Ander, gero Asier izan genuen, eta pixkat geroxeago Nerea eta Uribarri. Ezin dugu kexu izan, Jainkoak lau bitxi hauen bidez bedeinkatu gaitu, lau bitxi zein ederragoa; hauxe diot bi txikienak Downen sindromea baitute, Hasieran zorigaitza zena Jainkoaren opari bihurtu zen, bere borondatea onartzen duzunean dena Jainkoaren opari bihurtzen baita. Gure familia izan genuen euskarri, eta lagunak ere bai, adore eman baitziguten eta hala jarraitzen baitute. San Josemaria Escrivak zion Jainkoak asko maite dituen familiei bidaltzen diela haur horiek. Horregatik Rober eta ni zoriontsuak

sentitzen gara batuago egoten
laguntzen gaituzten seme-alaba
horiek ditugulako. Gainera egoera
honek itxurako egoeran dauden
familiei irekita egotera lagundu
digute.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/down-sindromea-oztopo-
ez-denean/](https://opusdei.org/eu-es/article/down-sindromea-oztopo-ez-denean/) (2026 Ots 22)